



## Lorezaintza-zerbitzua – Bikaintasun maila

### Prozedura ireki bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

## 1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

### 1.1. Kontratuaren ezaugarriak

#### 1. koadroa

Kontratuaren xedea da berdeguneen mantenurako lorezaintza-zerbitzua kontratatzea. Zerbitzuak gauzatzean, ingurumena gehien errespetatzen duten metodoak, jardunbideak eta produktuak erabiliko dira.

### 1.2. Hautaketa-irizpideak: gaitasun teknikoa eta profesionala

Eskatutako ingurumen-jarduera guztiak aplikatzen direla bermatzeko, kontratua gauzatzean ingurumen-kudeaketako neurriak hartzea, administrazio-pleguan gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko sar daitekeen betekizunetako bat izan ahalko da:

#### 2. koadroa

- Ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen direla bermatzea kontratuaren exekuzioan, honako egiaztargiri hauetakoren bat aurkeztuta:
  - Lorezaintza-zerbitzuak ingurumen-kudeaketako sistema bat izatearen ziurtagiria (EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo baliokidea); edo
  - lorezaintza-zerbitzuan ingurumena zaintzeko jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen direla frogatzen duten kontratuaren xedearekin lotutako arlo garrantzitsuak identifikatzeko dokumentazioa, ingurumen-hobekuntzako plana, laneko prozedurak/jarraibideak eta kontrol erregistroak.

- Zerbitzuarekin lotutako lorezaintza-jarduera jasagarrietan prestakuntza duen koordinatzaile bat izatea. Prestakuntza hori egiaztatzeko koordinatzailearen curriculuma aurkeztu beharko da.

### 1.3. Derrigorrean bete behar diren espezifikazio teknikoak eta esleipenerako irizpideetan baloratzen diren espezifikazioak

#### 1.3.1. Lurzoruaren ongarritze eta hobekuntzarako irizpideak

##### 3. koadroa

- Ongarri kimikoen erabilera administrazioak zehaztutako eremuetara bakarrik mugatuko da.
- Gainerako eremuetan lurzoruaren kalitate fisikoa eta kimikoa hobetzeko, konposta edo konpost asko lur-medegarriak gehituko zaizkio lurzoruari. Konpost eta medegarri horiek Europako etiketa ekologikoaren edo baliokideren baten irizpideak bete beharko dituzte, lurzoruaren edo laborantzarako substratuen medegarrien osaerari eta dituzten substantziei dagokienez. Informazio hori 2. eranskinean aurkeztuko da<sup>1</sup>.

#### 1.3.2. Izurriteak eta landareen gaixotasunak kontrolatzeko irizpideak

##### 4. koadroa

- Produktu bioziden edo fitosanitarioen aplikazioa ahalik eta gehien murriztu behar da, betiere berdeguneetako landaretzaren osasuna bermatuz. Horretarako, «Izurriteak kontrolatzeko plan integrala» aurkeztu behar du eskaintzaileak arazo bakoitzari emango dion tratamendua (prebentiboa, mekanikoa, termikoa, biologikoa) eta kasu zehatz bakoitzean erabiliko diren produktuak zehaztuz, espezifikoa izan behar badira, betiere. Tratamendua plana jarraituz egingo da baldintza klimatikoak egokiak direnean.
- Balioa emango zaio proposatutako Izurriteak kontrolatzeko plan integrala kalitatezkoa izateari.
- Halaber, balioa emango zaio proposatutako gainontzeko produktuak jarraian zehaztutako arrisku-oharren batekin sailkatuta eta etiketatuta ez egoteari, 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren eta ondorengo zuzenketen arabera: H300,

<sup>1</sup> Ikusi kapitulu honetako «Hornitzaileentzako checklista» dokumentua. Helbide honetan dago eskura: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>.

H301, H310, H311, H314, H330, H331, H340, H350, H360F, H360D, H360FD, H360Fd, H360Df, H361f, H361d, H361fd, H362, H370, H372, H400, H410, H411 edo EUH059.

Informazio hori 2. eranskinean aurkeztuko da.

### 1.3.3. Landare-horniduraren eta -hautaketaren irizpideak

#### 5. koadroa

- Administrazioak urte-sasoiko landareak erostea edo dauden landareen ordeztu inguruneko klimara hobeto egokitzen diren beste batzuk jartzea eskatuko du urtean zehar. Orduan, enpresak hasiera batean proposatutako landareen zerrenda berrikusi beharko du, eta alternatibak eskaini, beharrezkoa denean, batez ere ingurunera egokitutako espezie ez inbaditzaileen erabilera sustatuz, landare- eta animalia-biodibertsitatea areagotzeko.
- Landareak kaxa berrerabilgarrietan hornituko dira derrigorrez, eta mintegietara itzuliko dira berriz erabiltzeko. Eskaintzan, horretarako ezarritako prozedura deskribatu beharko da, eta mintegiarekin prozedura horren inguruan sinatutako hitzarmenaren kopia atxikiko da (lizitatzailerak mintegia bera denean salbu).
- Landareen edukiontzia berrerabilgarriak izango dira, eta mintegira itzuli beharko dira berrerabiltzeko; bestela, % 100 konpostagarriak eta biodegradagarriak izango dira, EN 13432:2000 arauak edo baliokideren batek ezarritakoaren arabera. Lehen kasuan, eskaintzan, horretarako ezarritako prozedura deskribatu beharko da, eta mintegiarekin prozedura horren inguruan sinatutako hitzarmenaren kopia atxikiko da (lizitatzailerak mintegia bera denean salbu).
- Horrez gain, landareen % 10 (eurotan) nekazaritza ekologikoa izango da, Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamenduan eta haren aldaketetan jasotakoari jarraikiz<sup>2</sup>.

Balioa emango zaio ehuneko handiagoetara iritsi ahal izateari [Eskaintza egin ahal izateko, urtean erosiko diren landareak eta horien kopuruak zerrendatu beharko dira].

<sup>2</sup> 834/2007 Erregelamendua indarrean egongo da 2020ra arte. 2021etik aurrera, indarrean egongo den erregelamendua 2018/848 (EB) Erregelamendua da. Horregatik, lizitazioaren argitalpen-egunaren arabera egokitu beharko da erreferentzia.

Irizpide hori oso zorrotza denez, balizko lizitatzailerak gutxienez aipatu % 10 horretara iristeko gai direla bermatu beharko da.

### 1.3.4. Ibilgailu-flotarako irizpideak

#### 6. koadroa

- Zerbitzurako proposatutako turismo-ibilgailuek edo merkataritzako ibilgailu arinek bete beharreko gutxieneko errekontza-gasen igorpenen estandarra EURO 6 mailakoa izan behar da.
- Balioa emango zaio proposatutako flotaren batez besteko CO<sub>2</sub> igorpenak baxuak izateari.

Informazio hori 3. eranskinean aurkeztuko da<sup>3</sup>.

### 1.3.5. Lorezaintzako makineriaren gaineko irizpideak

#### 7. koadroa

- Makinei dagokienez, lizitatzailak materia organikoarentzako eta zurarentzako birringailu eramangarria izan behar du lur-estalkiak edo mulchak *in situ* egiteko.
- Makinei dagokienez, eskaintzaileak materia organikoarentzako birringailu eramangarria izan behar du lur-estalkiak edo mulchak *in situ* egiteko.
- Bestalde, hauei ere balioa emango zaie hauei:
  - Motor % 100 elektrikoa duten makinak ehunekoak.
  - Elektrikoak ez diren gainontzeko makinei dagokienez, makinak batez besteko antzintasuna<sup>4</sup>.
  - I motako ekoetiketaren baten (Aingeru Urdina, Beltxarga Zuria, Ekoetiketa austriarra) edo horren baliokideren baten eskakizunak betetzen dituzten makinak ehunekoak.

Horretarako, 3. eranskina aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

<sup>3</sup> Ikusi kapitulu honetako «Hornitzaileentzako checklista» dokumentua. Helbide honetan dago eskura: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>.

<sup>4</sup> Zenbat eta antzintasun txikiagoak izan, txikiagoak izango dira gas kutsatzaileen eta zaraten igorpenak.

### 1.3.6. Olio eta koipe lubrifikatzaileentzako irizpideak

#### 8. koadroa

- Aplikazio irekietako olio eta koipe lubrifikatzaileek (kateak, sistema hidraulikoak, 2 aldiko motorrak...) Europar Batasuneko etiketa ekologikoan edo baliokideren batean zehaztutako eskakizunak bete beharko dituzte, osauerari, biodegradagarritasunari, biometagarritasun potentzialari eta toxikotasun akuatikoari dagokienez.
- 4 aldiko motorrentzako olio lubrifikatzaileen edukiaren gutxienez % 25 leheneratutako oinarritzko olioia izatea hobetsiko da.

Informazio hori 2. eranskinean aurkeztuko da.

### 1.3.7. Beste irizpide batzuk

#### 9. koadroa

- Ur-kontsumoa murrizteko, lizitatzzaileek uraren erabilera efizientearen plan bat aurkeztu beharko dute –ureztatzea barne hartuta–, eta balioa emango zaio efizientzia-mailari.
- [Eskualdean konposta egiteko instalaziorik ez badago] Balioa emango zaio enpresak, kontratuaren indarraldian sortutako landare-jatorriko hondakin ez-zurezkoak tratatu ahal izateko, materia organikoaren konposta egiteko instalazio bat edukitzeari.

## 2. Kontratua gauzatzea

Jarraian datozen betekizunetako batzuk zerbitzuaren kostua handi dezakete. Horrenbestez, zerbitzuarentzat gehieneko prezio bat definitzen bada, zerbitzu hori neurri berean areagotu beharko da.

#### 10. koadroa

##### Ontziak markatzea

- Ongarrien eta bioziden ontziak behar bezala etiketatuta egon behar dira, hauek adierazita: izena, konposatu arriskutsuak, erabiltzeko jarraibideak eta dosifikazioa. Gainera, dosifikatzeko tresna zehatzak izan behar dituzte.

**Ureztatze-jarduketak**

- Administrazioak zehaztutako lekuetan, mulcha edo jatorri organikoko lur-estalkia (lastoa, zuhaitz azala, koko oskola...) jarri beharko da, lurzorua babesteko, belar txarrik ez agertzeko eta lurzorua elikatzeke.
- Horrez gain, ur ez-edangarria erabiliko da (freatikoa, euri ura, grisak) administrazioak eskatzen duenean –administrazioak berak jarriko du ur hori esleipendunaren esku–.
- Landare berriak jartzen direnean eta kontratugileak hala eskatzen baldin badu, adjudikaziodunak, landareak beren behar hidrikoen arabera taldekatzeke eta intsektuak edo gaixotasunak uxatzearen landare osagarriak tartekatzeke antolaketa modu egokiena zein den proposatuko du.

**Hondakinen gaikako bilketa**

- Esleipendunak zerbitzuan sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatu behar du. Zehazki, honela:
  - Parkeetako zaborrontziak hustean, gaika bereiziko dira hondakinak (halakorik egonez gero).
  - Zurezko zati organikoak in situ edo enpresako instalazioetan xehatuko dira eta adostutako eremuetako lur-estalkietarako erabiliko dira (mulchinga).
  - Zati organiko guztia in situ konpostatuko da enpresaren instalazioetan edo baimendutako instalazio batean, adostutakoaren arabera.
  - Ontzi ez-arriskutsuak hirietan egiten den gaikako bilketa kontuan izanik bereiziko dira eta dagozkien edukiontzietara botako dira.
  - Produktu arriskutsuen ontziak bereizita bilduko dira eta baimendutako kudeatzaile baten bitartez kudeatuko dira.
  - Olio lubrifikatzaileak eta ibilgailuen eta makinaren beste produktu batzuk bereizita bilduko dira eta baimendutako kudeatzaile baten bitartez kudeatuko dira.

**Prestakuntza**

- Langileek beren zereginen zein osasunarentzako eta ingurumenarentzako arduraz aritzeko moduaren gaineko prestakuntza jaso behar dute. Esleipendunak lehen 2 asteetan aurkeztu beharko du prestakuntza-plana.

**Zerbitzuaren kudeaketa**

- Ingurumenari buruzko informazioa bilduko duten lan-arauak landu beharko ditu esleipendunak kontratuaren lehen hilabeteetan. Lan-arau horiek zerbitzuari eskainitako lokalean eskura egon beharko dira.

**Informazioa biltzea**

- Enpresak honako informazio hau jasoko duen urteko txostena aurkeztuko du:
  - Lurzoruaren kalitatea hobetzeko eta izurriteen kontrol integralerako egindako jarduketak.
  - Produktuen balantzea eta erabilitako kantitateak –ahal den neurrian kontsumoa monitorizatu eta dosifikazioa kontrolatzea da asmoa, eta betiere finkatutako estandarrak mantenduz, dosifikazioa murrizteko–.
  - Eskaintzan adierazitakoaren arabera, ingurumenarentzat egokiagoak diren produktuak erosi direla frogatzen duten fakturak.
  - Sortu diren hondakinak gaika bereiztea.
  - Prestakuntza-plana garatzea.

**3. Adjudikazio-irizpideak**

Esleipen-irizpideetan xehetasunez zehaztu behar dira elementu baloragarri bakoitzari emango zaion haztapena eta hura ebaluatzeko formula edo parametroak.

Balorazio-irizpideak aurkezten dira adibide gisa, formula matematiko bidezko balorazio automatikoen<sup>5</sup> eta formula matematikorik gabeko balorazio automatikoen arteko bereizketa eginez:

**11. koadroa****Formula matematiko bidezko balorazio automatikorako irizpideak**

- Ibilgailu-flota, CO<sub>2</sub> igorpenen batez bestekoa [gehienez 5]
- Lorezaintzarako makinak:
  - Motor % 100 elektrikoa duten makinaren ehunekoa [gehienez 2]
  - Makinen batez besteko antzintasuna [gehienez 2]
  - I. motako ekoetiketaren baten edo horren baliokideren baten eskakizunak betetzen dituzten makinaren ehunekoa [gehienez 1]

<sup>5</sup> Zenbait formula matematiko erabil daitezke (hirukotearen erregela sinplea, alderantziz proportzionala, desbideratze estandarra, eta abar) eta bakoitzak eragin jakin bat izango du eskaintzen arteko bereizketan; hortaz, kasu bakoitzean merkatuaren errealitatera egokitutako formula bat ezarri beharko da eskaintzen arteko aldeak proportziorik gabe ez desitxuratzeko.

- Hornitutako landareak, nekazaritza ekologikoko landareen ehunekorik handiena [gehienez 5]
- Arrisku-oharrik gabe sailkatutako produktu biozidak [gehienez 2]
- 4 aldiko motorrentzako leheneratutako motor olioak [gehienez 1]

#### **Balorazio automatikorako beste irizpide batzuk**

- Materia organikoaren konposta egiteko instalazioa [4]

#### **Balio-iritzi bidezko balorazio irizpideak**

- Izurriteen plan integrala [gehienez 4]
- Ureztapen-efizientiaren plana [gehienez 4]

## **4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintzen aurkezpena**

Eskaintzen eta aurkeztutako dokumentazioaren ebaluazioa errazteko, orrian dokumentazioa aurkezteko modu jakin bat eskatuko da. Informazio hori lizitazio-iragarkian zehaztuko da, izan daitezkeen lizitatzailleei denboraz jakinarazteko.

### **12. koadroa**

Lizitatzailleak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, honela zehaztuta:

- 1. Proiektua azaltzeko txostena.**
- 1., 2. eta 3. eranskinak<sup>6</sup>** behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Lizitatzailleak adierazitako espezifikazioak (bai derrigorrezkoak, bai baloragarriak) betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa ere atxiki beharko da.

Eskaintzaileari dagokio pleguan definitutako estandarren eta beste frogagiri baliokide batzuen arteko baliokidetasuna frogatzea; horretarako, baliokidetasun hori argi frogatzen duten ikerketa teknikoak aurkeztu beharko ditu.

<sup>6</sup> Ikusi kapitulu honetako «Hornitzaileentzako checklista» dokumentua. Helbide honetan dago eskura: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>.